

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5043

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena: «215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira urriaren 16ko 215/2012 Dekretuan (dekretu horren bidez, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatu eta kontserbazio-neurriak onartzen dira). Dekretu hori 2013ko ekainaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 112. zenbakian. Dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

2013/2704 (282/284) eta 2013/2704 (283/284) orrialdeetan, gaztelaniazko bertsioan, XV. eranskineko Jarraipen Programako Adierazleen Zutabearen, ES2110020 Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron Kontserbazio Bereziko Eremuaren helburu eta jarduera partikularrak atalean, hiru aldiz aipatzen da ZEC Lea Ibaia/Río Lea,

Honela dio:

«ZEC Lea ibaia/río Lea»

Honela esan behar du hiru kasuetan:

«ZEC Ega-Berron ibaia/río Ega-Berron:»